

EKILIKUA HIZTEGIA

Euskara gero eta azertuago dugu. Bide zabalak ebaki ditugu. Tresneria aldetik batez ere, oso aberastu gara. Hiztegiak, gramatikak, interneteko baliabideak ugaltu egin dira.

Oraindik, halere, oso behartsu gaude atzerriko hiztegietan. Deitoragarri! Ez dugu aleman, latin, italiara ... hiztegiarik.

Gure aurrekoak ez ziren euskara goi mailara jasotzen saiatu. Euskara eta eskola, areago euskara eta unibertsitatea, elkarrengandik inongo harremanik gabe bizi izan dira gizaldiz gizaldi.

Gure belaunaldia axolatu da zinez euskara gizarteko alor guztietara hedatzen.

Axola horren ondorio izan dira azken urteotan ikusi dugun horrenbeste lan bikain. Handienetako bat *Orotariko euskal hiztegia* izan da. Zinez txalogarria.

Beste asko ere azaldu dira. Guztiok ezagutzen ditugu. Horien artean orain eskuetan daukadana, Idoia Alzibar-en *Ekilikua. Euskal sinonimoen abozko bilduma*.

Izenak dioen bezala, *Ekilikua* sinonimoen hiztegia duzu.

Sinonimoen hiztegiak mesedegarriak dira guztientzat eta batez ere idazleentzat. Idazleak ezin du beti hitz bera erabili, aspergarri izango ez bada. Sinonimoek lagundu egiten diote idazteari gatza, arintasuna eta barietatea emanez.

Lehenago ere baditugu sinonimoen hiztegi bikainak. Hementxe dut, adibidez, begien aurrean neure mahaian Adorez-ek egindako *sinonimoen hiztegia*. Bikaina. Nik maiz erabiltzen dut.

Alzibarren hiztegi honek badu, besteak beste, alderdi seinagarri bat.

Sinonimo horiek jendearen ahotik jasoak direla. Bizkaia Irratiak irratsaio bat antolatu zuen jendeari sinonimoak eskatzeko. Hiztegi hau entzuleen erantzunekin egina dago. Badu, beraz, beste sinonimoen hiztegiek horren markaturik ez daukaten alderdia: *ahozkoa izatea*.

Alzibarrek lan eskerga hartu du irratiko multzo nahasi hori aztertzen, aukeratzen eta sailkatzen.

Euskalkien aldekoak garenok hiztegi hau oso aintzakotzat hartzen dugu. Bizkaia Irratia batez ere bizkaitarrek entzuten dute eta jakina, hiztegi honetan garbi azaltzen da bizkaieraren kutsua. Oso pozgarria guretzat.

Ni, Euskal Filologia sortu genuenetik neure estudianteen artean bizkaierarako estimua eta maitasuna pizten saiatu nintzen. Batzuek uste zuten gipuzkera oso ona zela eta bizkaiera kaxkarra. Uste okerra zen. Gipuzkera oso ona da eta bizkaiera ere bai.

Ondo asmatu du Alzibarrek lexema bakoitzaren ondoan adibide bat ipiniz. Sarri lexema bera bakarrik motz eta labur gelditzen baita. Lexemak perpausean hartzen du bere esanahi bete eta zehatza.

Hiztegien balioa ezin liteke neurtu hitz hutsez. Hiztegiak erabiltzeko dira eta erabiliz ikusten da zer nolako altxorak diren.

Nathaniel Hawthornen hitzez oroiten naiz: “Gezurra badirudi ere, zenbat eta hizkuntza batez hobeki mintzatu, orduan eta sarriago erabiltzen dira hizkuntza horretako hiztegiak”.

Euskaraz ongi badakizu, Alzibarren hiztegia mesedegarri izango zaizu. Hobeki mintzatzeko eta idazteko lagunduko dizu.

Gotzon Garate